

Korrika Txikia

Haurren Korrika da, eta herriko ikastetxeen laguntzarekin, herria zeharkatzen du, hurrek ere Korrikan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Korrika Txikia Ibarrran

Eguna: martxoaren 22an

Ordua: 10:30ean

Lekua: San Bartolome plazan

Omenduak

Korrikaren ekitaldi bakoitzean, euskararen aldeko konpromisoagatik nabarmendu diren lagunak, taldeak edo eragileak omentzen dituzte.

Korrika honetan Azterketak Euskaraz kolektiboa omenduko dute. Zehazki, baxoa eta brebeta euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak.



Martxoaren 23an
14:15ean
Ibarrratik pasatuko da



Zer da Korrika?

Korrika Euskal Herria zeharkatzen duen euskararen aldeko ekimen erraldoi eta herrikoia da. Bi urtean behin izaten da.

Zertarako da Korrika?

- Gure hizkuntza zaintzearen garrantziaz jabetzeko.
- Euskaltegietarako dirua biltzeko.



✓ 11 egunez eta gauez, gelditu gabe, Euskal Herria osoa zeharkatuko du.

✓ Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik pasatuko da: Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa, Araba, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.

✓ 2.500 kilometro baino gehiago, 200 herri baino gehiagotan barrena.

✓ 1980 urtean egin zen lehen aldiz.

✓ Milaka eta milaka lagunek hartzen dute parte Korrika bakoitzean.

Lekukoa

Lasterketaren hasieran, (2024-03-14, Iruñea) mezu bat gordeko da lekukoa.

Lekukoa eskuz esku ibiliko da, herriz herri, 11 egunez.

Helmugara iristean, (2024-03-24, Baiona), lekukoa ireki eta mezua irakurriko da.

Aurtengo leloa: Harro Herri

Aurtengo Korrikaren leloa Harro Herri da. Lema horrekin euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasuna islatu nahi izan dute antolatzaileek.

Abestia

Korrika bakoitzak bere abestia izaten du. Aurtengoa Maite Arroita Jauregi 'Mursego' musikari eibartarrak egin du, eta beste hainbat musikariren kolaborazioarekin landu eta grabatu du. Berezia da aurtengo abestia. Sei-zazpi zati ditu, eta "pop-barroko" bezala definitu du egileak.

Informazio guztia, eskura

Korrikaren ibilbidea herriz herri, aurtengo eta aurreko urteetako abesti guztiak, bideoklipak, argazkiak eta Korrikaren inguruko albisteak eskura izateko, korrika.eus webgunera jo daiteke. Korrika APP aplikazioa ere doan jaitsi daiteke, iOS zein Android sistema eragileetan.

